

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gutxinaka-gutxinaka gure proiektua aurrera doa, baina oraindik gauza asko daude egiteko eta hobetzeko. Atal honetan gure proiektua martxan jartzeko ezinbestekoak diren baliabideez arituko gara.

Hasteko baliabide fisikoez jardungo dugu. Gure kasuan behar dugun baliabide fisiko bakarra lokala da. Lokala gure txokoa izango da, gure ideiak garatuko ditugun lekua. Hau lortzeko Uggasa elkartearekin komunikatuko gara.

Dirua ere beharko dugu. Hau, baliabide finantziarioa izango da, eta bide batez, ez litzaiguke gaizki etorriko diru pixka bat aurreztuta edukitzea ohargabeko gastuak ordaintzeko.



Gure baliabide garrantzitsuenak eta funtsezkoak direnak baliabide intelektualak dira. Baliabide hauek gure taldekide bakoitzak dituen bertuteak dira. Hauek gabe oso zaila izango litzateke gure proiektua sortzea; izan ere, jakinduriarik eta abileziarik ez bagenu, gure produktuak ez luke aurrera jarraituko. Lehenik eta behin, lehen esan bezala ikastetxez-ikastetxe mugituko garenez, eta bertan umeekin harremana edukitzeko, eta konfiantza sustatzeko baliabide emozionalak erabili beharko ditugunez, gai honi buruzko jakinduria edukitzea nahitaezkoa da, kontuan

hartu behar baitugu bai umeei azaltzeko orduan, baita zuzendariei proiektua aurkezteko momentuan ere. Horrez gain, prest egon behar dugu ikastetxeren batean autismoa duen umeren bat badago. Horrelako kasu berezietan egoeraren kudeaketa ere behar-beharrezkoa baita.

Beste alde batetik, gure proiektuari eta taldeari hainbat gauza eskeiniko dizkio taldeko partaide bakoitzak:

- Mainerrek adibidez, esperientzia nabarmena du diseinatzen, eta marrazketa digitalean duen jakinduriari eta abilitateari esker gure enpresaren logoa marrazteaz eta diseinatzeaz arduratuko da. Horrez gain, logoa egin ondoren, produktua diseinatuko du, hau da, hitzaldien eta jokoen antolakuntza, modu honetara, gure proiektuak arraakasta izango du.
- Bestalde, Garazik umeekin tratu ona izateko abilezia dauka, oso ondo konektatzen du haiekin eta bertute hau ere oso ondo dator ikasleak eroso sentiaranteko orduan.
- Hitzaldiak ere oso garrantzitsuak dira, eta Asierrek Gautena elkarteko partaideekin harremana duenez, hitzaldiak prestatzeaz arduratuko da.

Gainera Asierrek esperientzia du psikologia klaseetan eta oso ondo kudeatzen ditu emango ditugun klaseetan sortuko diren emozioak.

- Bukatzeko, Maddi izango da gure produktua bezeroei gustatzeaz eta azaltzeaz arduratuko dena. Maddik oso ondo hitzegiteaz gain, primerako teknikak erabiltzen ditu jendearen atentzioa bereganatu eta horri eusteko, hau da, saltzaile sena du, eta gainera estrategia onak erabiltzen ditu pertsonak konbenzitzeko.

Gure habilezia hauek oso garrantzitsuak dira, baina denek komunean dugun habilezia bat autismoari buruzko jakinduria da, hau da, taldekide bakoitza oso ondo informatuta dago gai honi buruz, eta elkarrekin lan bikaina egingo dugu. Gainerako ardurak denen artean banatuko ditugu: mezuak erantzutea, ikastetxeen antolakuntza... Hau esanda, proiektua ondo atera dadin eta arrakasta izan dezagun gauza hauek guztiak kuntuan hartu behar ditugu eta elkarri lagundu.

Azkenik, egin beharreko azken gauza gometxak erostea da gure jokoak aurrera eramanez ahal izateko. Hauek edozein liburudendan aurkitu daitezke. Pegatina hauek ez ditugu bakarrik saio bakarrerako erosiko, hamar edo hamabost bilkari erostea erabaki dugu, batzuk eskola eta kontratatuko gaituzten tokietara eramateko eta besteak guk geuk gordetzeko aurrerago besteak bukatzen direnerako.